



## ESKAERA HAU ONDOKO HELBIDE HAUETAN AURKEZ DAITEKE:

**Legazpiko Udala**  
Euskal Herria plaza, 120230 – Legazpi (Gipuzkoa)  
[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)

**Bikuña Kiroldegia**  
Bikuña kalea, 36 – 20230 Legazpi (Gipuzkoa)  
[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)

### **Aurrez aurre:**

- 1.- Kiroldegiko harreran (Bikuña kalea, 36, Legazpi).  
Astelehenetik ostiralera: 09:00 – 22:00  
Larunbatetan: 09:00 – 13:00 eta 15:30 – 21:00  
Igandetan: 09:00 – 14:00  
Abuztuan: 10:00 – 20:00
- 2.- Udaletxean (Euskal Herria plaza, 1. 20230 – Legazpi).  
Astelehenetik ostiralera: 07:30 - 15:00

**Posta arrunta bidez:** Posta bulegoetan, posta ziurtatu irekiaren bidez.

**Telematikoki:** <http://egoitza.legazpi.eus>

**e-posta:** [haz@legazpi.eus](mailto:haz@legazpi.eus)

### IGERIKETAKO IKASTAROAK

#### BARNE ARAUDIA

- 1.- Talde bakoitzean gutxienez 8 eta gehienez 10 ikaslek parte hartuko dute.
- 2.- Igeriketa zerbitzuko arduradunak erabakiko du talde bakoitzeko ikasle kopurua. Adibidez, 20 ikasle 17:00tako ikastaroan eta 10 ikasle 18:00tako ikastaroan. Guztira 30 ikasle.
- 3.- Izen emateak ikastaro jakin baterako egingo dira ( 11:00tako ikastarorako, 17:00tako ikastarorako, 18:00tako ikastarorako, etabar). Aukeratutako ordutegian/ikastaroan tokirik ez balego beste batean egiteko aukera adieraziko da eta zein ordutegi-ikastarotan esango da.
- 4.-Matrikula ordaintzea ezinbestekoa da zozketan parte hartzeko
- 5.- Izena emandako guztien artean zozketa egingo da Legazpin erroldatutakoek lehenetsuna izango dutelarik. Lehenik zozketatuko dena lehenengo ikastaro-ordutegia zozketatuko da, gero bigarrena, hirugarrena, e.a. Horrela tokia lortu dutenen 30 (edota igeriketako arduradunak adierazitako kopuruak) ikastaroa egiteko aukera izango dute. Izena eman duten guztiak zozketatuko dira erreserba guztiei zenbakia jartzeko.
- 6.- Lehen ikastaroan/ordutegian erreserban geratu den norbaitek bigarrenean, hirugarrenean, e.a., pasatu nahiko baluke izen ematerakoan horrela adierazi duelako eta aukeratutako ikastaro-ordutegian tokia egon, zozketaren ordena jarraituko da hurrengo ikastaroa bete arte.
- 7.- Zozketa hilabete bakoitzeko 25an egingo da 17:30 eta 18:00 bitartean ( ordua finkatu gabe geratzen da). Egun hau urteko egutegiaren arabera aldatu daiteke. Dena den zozketako egunetik ikastaroaren hasera bitartean 4 egun igaro beharko dira gutxienez.
- 8.- Zozketa egin ondoren behin behineko zerrenda aterako da eta argibidetako panelean jarriko da.
- 9.- Igeriketako ikastaroaren eta gainontzeko zerbitzuen garapen egokirako, ostirala bakarrik izango da ikasleak ikusteko eguna.
- 10.- Araudi honetan aurreikusita ez dagoena zuzendaritza batzordeak erabakiko du.

### BIKUÑA KIROLDEGIKO IKASTAROAK

#### BARNE ARAUDIA

- 1.- Ikaslea, Bikuña Kiroldegiko instalakuntzetan izena eman eta edozein ikastaroetan parte hartzen duen Abonatu edota Abonatu ez den erabiltzailea da. Urtero jakinaraziko dira Bikuña Kiroldegian eskainiko diren ikastaroak horretarako argitaratuko den katalogoan.
- 2.- Kirol ikastaroak ez dira derrigorrez kirol jakin batean oinarrituak egongo eta beraien programazioa ebolutiboa izango da iraupen jakinik gabe.
- 3.- Bikuña Kiroldegian antolatutako ikastaroak bertan burututako programaketa izango dute eta eskaeraren arabera antolatuko dira.
- 4.- Kirol ikastaroetarako izen emateak Bikuña Kiroldegian egingo dira eta horretarako behean aipatzen diren datuak bete beharko dira  
Izen emateak eta izen berritzeak arautegi hau jarraituko dute:
- 5.- Irailetik abendura barne eta urtarriletik uztailean barne, izen berritzeak automatikoki egingo dira.
- 6.- Ikastaroan baja emateko dagokion txostena bete beharko da. Baja emateko azken eguna hilabete bakoitzaren 25 izango da. Horrela egiten ez bada, hurrengo hilabeteko tasa ordaintzea derrigorrezkoa izango da.
- 7.- Ikastaroaren tasa ordaintzen ez bada, ikastaroan baja emango zaio eta ezin izango du aurrerantzean berriro izena eman.
- 8.- Ikastaroaren tasaren zorra, ikastaroko lehen egunean sortzen da.
- 9.- Ikastaroaren tasa ez da inolaz ere itzuliko nahiz eta ikaslea klaseetara ez etorri.
- 10.- Udal Kirol Patronatuak ikastaroak bertan behera utzi ditzake eskaera nahikoa ez denean.